

Eskolagune

## Nori erori zaio mokoa?

### ARLO/IKASGAIA:

- Natura, gizarte eta kultura ingurumenaren ezagutza

### ETAPA:

- Lehen Hezkuntza (2. Zikloa)

Noiz edo noiz fijatu al zarete hegaztien mokoetan? Luzeak, motzak, meheak, lodiak, lauak, sendoak... eta batzuk pirata-kakoa dirudite! Badakizue zergatik diren horren desberdinak? Hegazti bakoitzak moko berezia du bere janari gogokoena jateko, paduretan eta antzeko lekuetan aurkitzen dute janaria. Baina batzuetan, jan behar ez liratekeen zaborrak janariarekin nahastu eta jan egiten dituzte. Hondakin horiek ez dira naturan sortzen. Nola uste duzue iristen direla ekosistemetara?

